

Sarrera

Askok esango luketen moduan, Leioak ez du historia gogoangarria izan; gure udalerriak ez du egintza eta pertsonaia esanguratsuz beteriko historia berezia eduki. Hala ere, gure iritziz, sona handiko gertakizunek eta itzal handiko gizabanakoek baino, norbanakoek, eta haiek osaturiko komunitate txikiek, eguneroko lan eta bizimoduaren bitartez, eguneroko bizipen eta sentimenduen ildotik, beste historia bat harilkatzen dute -izenik gabeko historia-, eguneroko bizimoduaren historia, eta, egiatan, egintza eta gizabanako berezi horiek nabarmentzeko beharrezko duten esparru orokorra da azkena. Norbanako ezezagunek eta taldeak eguneroko bizimodua egintza jakin batzuetan islatzen dituztenean (bide batez, esan dezagun Leioan gertaturikoak ez direla tamaina txikikoak, lan honetan ikusi ahal izango dugun bezala), gauza txikien historia handia sortzen ari da, eta horixe mamitu behar dugu orainaldia ulertzeko.

Leioa, jatorriz, landa-eremuko elizatea izan da, eta gogo bizirik gabeko bizitza izan ei du mende askotan; baina era berean, Lamiakoko padurak lehortu ostean, itsasadarraren eskuinaldea ukitu zuten industrializazio azkar-azkarraren lekuko eta partaide izan da, Areetan eta Negurin, egoitza izaerako hiringintza taxutu zen bitartean. Bilakaera horrek bi eremu berezi sorrarazi zituen elizatean:

1. Nekazaritza eremua: itsasadarretik urruneko lur garaiak, hain zuzen ere, Elexalde gunea -San Joan Bataiatzailearen eliza, hilerria eta udaletxea-. Eremu hori bizitegi bihurtu zen XX. mendearen erdialdetik aurrera.
2. Industri eremua: itsasadarraren aldeko lur behereak (Lamiako, San Maximo elizaren ingurua).

Alabaina, gure elizatea goitik behera bilakatu zuen aldaketa horretatik gaur egunera arte, beste gertakizun asko eta asko jaso dira Leioan, txikiak eta handiak, eta horiek guztioriek eragin diote udalerraren historiari. Zehatz-mehatz aztertuko ditugu guztiak, baina, gure iritziz, komeni da aldaketok jazo ziren eta herriaren bilakaeran horren eragin handia izan zuen ingurunearen ezaugarriei aurretik erreparatzea.

LEHENENGO ATALA: INGURUNE GEOGRAFIKOA

Leioako udalerrria Bilbo Handia izeneko eskualdean dago eta 8,36 km²-ko azalera du -azalera horretan, 8,17 km² lehorrekoak dira eta 0,19 km² itsasadarrekoak- eta Nerbioi-Ibaizabal itsasadarraren bokaletik hurbil dago, eskuineko aldean. Honako muga hauek ditu: Getxo eta Berango, iparraldean, Erandio, ekialdean eta hegoaldean, eta Getxo eta itsasadarra mendebaldean.

Leioako erliebea oso leuna da, 50 metrotik beherako batez besteko garaiera du eta hainbat ibai eta erreka ditu, muino leunetan behera, itsasadarraren ertzean dagoen ibar beheraraino jaisten direnak. Mendirik garaienak Kurkudi (126 m), Bolunburu eta Ikea dira. Gailur horietan zenbait erreka jaiotzen dira, eta udalerrria zeharkatzen dute iparraldetik hegoaldera; halaber, troka txikiak eratu dituzte pasatzean. Hegoaldeko erdialdean dauden gailurrak 50 metrotik beherakoak dira, eta Udondo nahiz Lamiakoko ibarrek sorturiko eremu lau asko ageri dira. Erdigunean, Artatzagane nabari da, 76 metro garai izan arren. Itsas mailaren parean ia-ia, Lamiakoko ibarra dago. Udondo ibaiaren eskuinaldean sortu da, Gobela ibaiarekin elkartzen den lekuan, itsasadarrean itsasoratu baino lehen.

Etimologiari dagokionez, Iturriza eta beste idazle batzuen arabera, Leioa berba-lehen Lexona eta gero Lejona (1979ko abenduaren 21a arte)-, "leiho-ona", begiratoki ona, berbetatik eratortzen bide da, eta Artatzako muinoetatik dagoen ikuspegiaren aipu egiten ei du. Beste idazle batzuen arabera, hala nola, Truebaren arabera, "elexa-ona" (eliza ona) berbetatik eratorri bide da. Nolanahi ere, elizatearen izendazioak lotura dauka ingurune geografikoarekin, eta, zehatzago esanda, erliebearekin.

Hidrografiari dagokionez, Udondo ibaia udalerrriaren iparraldeko muga da. Leioatik igarotzen dela, Udondok Urgitxi, Iberre, Lertutxe -goi-ibarrean, izen bereko urtegia dago-, Mendibile eta Elexalde erreken urak biltzen ditu, eta iparraldetik hegoaldera doa, Gobela ibaiarekin bat egiten duen lekuraino, bokaletik oso gertu. Gobela ibaiak Getxotik etorri eta Leioako udalerrria zeharkatzen zuen lehen (eta bertan Kurkudi erreka Gobelara isurtzen zen), hegomendebaldetik iparreki alderako norabidean, harik eta Pedro de Belaunzaran arkitektoak egindako egitasmoei jarraiki ibilgua aldatu zen arte. Industrializazioa eta harea ekarpenak direla eta, Gobela ibaiaren ibilgua aldatu zenean, itsasadarraren paralelo baina aurkako norabidean igarotzen hasi zen eta itsasadarrean bertan itsasoratzen zen, Udondo ibaiarekin bat eginda. Azken tartean, ibai biak itsasadar bilakatzen ziren, eta itsasgorek nahiz itsasbeherek ukitzen zuten bokalea.

Lamiakoko padurak itsasadarraren ertzean daude, Areetara doan errepidearen eskuinaldean. Joan den mendean, mareek gainezkatzen zuten eremu hori eta Astrabuduako padurekin lotzen ziren; hala, duna-lerro eta urmael gazikarak hedatzen ziren Asuatik Algortaraino.

Egitura eta geologiari dagokienez, Leioa Bizkaiko sinklinorioaren hegoaldeko alpean dago, eta bertako egiturek eta serieek HE-IM norabidea dute. Udalerrian, Goi-Kretazeoko tuparriak, kare-harri buztintsuak, hareharriak eta lutitak daude. Geruza horien gainean, kare-harriak, tuparriak eta hareharriak metatu ziren Tertziarioan (aldi horren zati batean, Bizkaia urpean egon zen). Tertziarioaren erdialdean, alpetar orogeniak eta sumendi-erupzioek arroka bolkanikoen metaketak eratu zituzten. Kuaternarioko metaketak, hala nola, legarrak, hareharriak eta alubioi-metaketak, orain dela 100.000 urte inguru gertatu zen itsas trasgresioaren ondotik metatu ziren. Udalerriko harri-osaera, batez ere, kare-harrizkoa da, eta edafologiari erreparaturik, lurzorua arreak dira eta eskualde hezetako kare-harrizko osagaiak dituzte.

Leioako alde beheko landaredia padura eta kostaldeko hareatzakoa da. Itsasaldiaren eragina duen eremuan, ihi garaiko (*Juncus maritimus*) belazeak, ihi txikiko soropilak eta *Festuca rubra* belardi trinko eta garaiak dira nagusi. Hezetasuna galdu ahala, ordea, itsasgorak iritsi ez eta ur geza nagusi den aldeetan, lezkak ageri dira, eta bestelako itxura ematen diote padurari. Giza eraginez, eremu horretako landaredia oso andeaturik dago.

Udallerriaren barrualdean, larreak dira nagusi, baina lehen gailenak ziren zuhaitzen guneak ere ageri dira: artadi eta hariztiak, bai eta ibaiertzeko landaredia eta eukaliptuen baso-berritzeak, antzina Uribe aldean zeuden (baina gaur egun oso gutxi dauden) hosto erorkorreko basoekin bat (pagoak, haritz kandugabeak eta ametzak, eta bakanago haginak, lizarrak, hurritzak, astigarrak, ezkiak, zumarrak eta gorostiak, goiko edo mendiko estaian; haritz kandudunak, kantauriar arteak kare-harrizko hegaletan, eta hurritzak, urkiak, astigarrak eta lizarrak beheko edo mendixkako estaian).

Klima atlantikoak eragiten dio Leioari, eta, beraz, honako ezaugarri hauek ditu: negu suabeak, ohiz kanpoko hotz-boladak, 11°C-ko tenperatura-bitartea eta 14°C-ko batez besteko tenperatura, prezipitazioak 1000-1200 mm-koak dira eta hegomendebaldeko haize hezeak nagusi dira.